



EUSKADIN KIROL ARLOKO LANBIDEETAN SARTZEARI ETA JARDUTEARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTEN OSAGARRIA.

I.- SARRERA. AURREKARIAK

1. Memoria hau honako erabaki honen bideragarritasun juridikoa justifikatzeko egin da: Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak gobernu-kontseilura berriz aurkeztea gobernu-kontseiluak 2016ko otsailaren 23an egindako bilkuran *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektu* gisa onartutako testu artikulatua.
2. Lege-proiektu hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuten, eta Legebiltzarreko Mahaia, 2016ko apirilaren 12ko bilkuran, Lege-proiektua izapidetzeko onartzea erabaki zuen; halaber, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordera igortzeko ere agindu zuen, baita Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko ere; 2016ko apirilaren 15ean argitaratu zuten.
3. Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren IX. kapituluak legebiltzarreko izapideen iraungipena arautzen du eta, oro har, honakoa adierazten du 130. artikuluan:

*«Eusko Legebiltzarra desegindakoan edo Legebiltzarraren agintaldia amaitutakoan, **iraungi egingo dira tramitazioan dauden gai guztiak**, salbu eta Diputazio Iraunkorrek aztertu eta erabaki beharrekoak edo legeak hala aginduta atzeratu beharrekoak».*
4. Aipatutako manu horretan xedatutakoarekin bat etorriz, eta 2016ko abuztuaren 2an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zenez abuztuaren 1eko 23/2016 Dekretua, Lehendakariarena, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duena, *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua*, gobernu-kontseiluak onartu eta ondoren Eusko Legebiltzarrera igorria, iraungi zen legebiltzarreko tramitazioan.



5. Aurrekari labur horietaz gain, adierazi behar dugu memoria honek kontuan hartu beharreko hainbat inguruabarretan ere baduela izateko arrazoia. Lehenik, Gobernu Kontseiluak, 2017ko otsailaren 28ko bilkuran, XI. Legegintzaldirako Legegintza Programa onartu du. Programa horrek Euskal Ganberara 28 lege-proiektu igortzea jasotzen du. Eta Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrera igorri beharreko lege-proiektuen zerrendan *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua* dago, 26. zenbakiarekin; araugintza-ekimena, halaber, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari egotzi diote.

6. Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, 2017ko maiatzaren 9an, txosten juridiko bat egin du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren eskariz, *ekainaren 21eko Kiroleko Dopinaren aurkako 12/2012 Legea aldatzeko Lege-aurreproiektuaren* tramitazioaren harira, honako izenburu honekin: «*Gobernu Kontseiluak lege-aurreproiektu bera, aurreko legegintzaldian egindako modu berean, berriz onartzeko aukeraren bideragarritasun juridikoa, ondoren lege-proiektu gisa Legebiltzarrera igortzeko, aurretiko izapiderik egin beharrik gabe eta aldeztu aurretik egindako prozedura-izapideak baliozkotzat onartuta*». Irizpen horrek honako ondorio hauek ditu, bestek beste:

Lehena.- Indarrean den ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, argi da Legebiltzarra desegiteak, beti eta kasu guztietan, aurretik aurkeztutako legegintzako proiektu guztiak iraungitzea dakarrela eta, ondorioz, Jaurlaritzaren legegintzako ekimenerako eskubidea berriz baliatuz errepikatu behar izatea. Orain indarrean den Gobernu Kontseiluak, ordea, Jaurlaritzari buruzko Legeak (ekainaren 30eko 7/1981) 16. eta 18 a) artikuluetan legegintzako ekimenerako aitortzen dion ahalmena baliatuz, erabaki dezake aldeztu aurretik onartutako lege-proiektu bat onartzea eta Legebiltzarrera igortzea, eskumena duen sailburuak dagokion proposamena hari aurkeztu ondoren. Era horretan, aurretik aurkeztutako *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektuaren* legebiltzarreko tramitazioa



iraungitzeak ez dakar legegintzako ekimen hori errepikatu, hau da, berriz aurkeztu ezin denik aurretik egindako modu berean. Irizpenak, amaitzeko, hau ere xedatzen du: «*Zalantzarik gabekoa da guztiaz, legebiltzarrari dagokionez soilik, Eusko Jaurlaritza berriak, legegintzako ekimenerako eskubidea duen neurrian, hauteskunde-prozeduraren ondoriozko ganbera berriaren aurrean aurreko kabinetek onartutako ekimenak modu berean errepikatzeke gaitasun osoa duela, ekimenaren iraungipenak ez baitio eragiten Jaurlaritzak haiek aurkezteko duen eskubideari*».

Bigarrena.- Bai Aholku Batzorde Juridikoak bai Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak berariaz xedatu dute legegintzaldia eta kabinetea aldatzeak ez dakarrela berez, inola ere ez, arauak egiteko administrazio-prozedurak iraungitzea, eta ez duela eragiten izapidetze parlamentarioaren aurretiko prozedura horien barruan eginiko administrazio-izapideak baliogabeak izatea. Hori horrela, ohikoa da, bi organo horiek hainbat irizpenetan baliozkotuta, aurreko Jaurlaritzak egindako izapideak ontzat jotzea eta izapide horiek, modu natural batez, hurrengo legegintzaldian Gobernu Kontseiluak onartzeko igortzen duten espedientearen zati izan daitezten. Era horretan, legegintzaldi batean hasitako izapideak guztiz baliozkoak eta erabilgarriak dira, bihurtzeko edo baliozkotzeko egintzaren beharrik gabe, Gobernu Kontseiluaren onespene berri bati begira. Eta hori aplikagarri zaie Legebiltzarrerara igorri aurretiko administrazio-prozeduraren egintza guztiei –hasiera emateko agindutik hasita Gobernu Kontseiluak onartzeko egintzara arte, biak barne–; hala, bada, administrazio-egintzen baliozkotasun juridikoari eustea zein egintzak kontserbatzeko printzipioa horientzat guztientzat dira aldarrikatzekeak, azken hori barne, eta haien indarraldi materiala baino ez da baloratu behar.

Hirugarrena.- *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua* Gobernu Kontseilura haren kide batek –kasu honetan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak– aurkez dezan, beharrezkoa da, proposamenaren egokitasunaren erabaki formala erakustea ez ezik –aipatutako Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.8 artikuluan jasota–, araubideragarritasuna indarrean dagoela (aurretik igorri ondoren onartutako



arauek eragin ez diotela, alegia) eta aurretik eginiko izapideak indarrean daudela baieztatzea ere, baita nahi duen ordenamendu juridikoa berritzea egokia eta beharrezkoa dela baieztatzea ere, oraingo Jaurlaritzaren proiektu politikoan aurreikusitakoari jarraikiz.

7. *Ut supra* adierazitako ondorioak aintzat hartuta, ez dago zalantzarik Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseilura aurkez dezakeela *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua*, Gobernu Kontseiluaren 2016ko otsailaren 23ko bilkuran onetsitakoa. Hartarako, hau egin behar da:

a) Aurreko **lege-proiektuaren arau-bideragarritasuna** baieztatzea, hots, igorri ondoren onartutako arauek eragin ez diotela frogatzea.

b) **Aurretik egindako izapideak indarrean daudela** baieztatzea.

8. Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egindako irizpenak ondorioztatzen du, halaber, aurretik azaldu dugun bezala, dagokion sailburuak Gobernu Kontseiluari egindako proposamenak Lege-proiektua egokia eta beharrezkoa dela ere abalatu behar duela. Gure iritziz betekizun hori beteta dago nolabait, eta ez da beste txosten eta irizpen bat behar; izan ere, egungo Gobernu Kontseiluak, 2017ko otsailaren 28ko bilkuran, lege-proiektu hori jaso du jada indarrean den XI. Legegintzaldirako *Legegintza Programan*, eta arrazoizkoa da pentsatzea erabaki horren aurretik haren beharra eta egokitasuna behar bezala aztertu zirela.

9. Hori guztia dela eta, memoria honek aurreko lege-proiektuaren arau-bideragarritasunari helduko dio funtsean, hots, igorri ondoren onartutako arauek ez diotela eragin; horrez gain, aurretik egindako administrazio-izapideak indarrean dauden ere aztertuko da.



II.- AURREKO LEGE-PROIEKTUA ZELA-ETA EGINDAKO ADMINISTRAZIO-IZAPIDEEI BURUZKO IRIZPIDE OROKORRAK

10. Aurretik ere adierazi dugu legegintzaldia eta Jaurlaritzan kabinetea aldatzeak berez ez dakarrela, inola ere ez, arauak egiteko prozedurak iraungitzea, eta ez duela eragiten, orobat, *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua* legebiltzarrean izapidetu aurretiko prozedura horien barruan egindako administrazio-izapideak baliogabeak izatea; horrenbestez, ohikoa da aurreko sailburu batek edo aurreko Jaurlaritzak hasitako izapideak ontzat jotzea eta, modu natural batez, hurrengo legegintzaldian Gobernu Kontseiluan onartzeko igortzen duten lege-proiektuaren espedientearen zati izan daitezen. Era horretan, aurreko legegintzaldian Lege-proiektua onartzeko hasitako izapideak guztiz baliozkoak eta erabilgarriak dira, bihurtzeko edo baliozkotzeko egintzaren beharrik gabe, Gobernu Kontseiluaren onespene berri bati begira. Eta erabat logikoa da ondorio hori, administrazio-prozedura baten barruan aurreko legegintzaldi batean egindako izapide horiek ez baitira deusez bilakatzen eta ez baitute baliorik galtzen legegintzaldia aldatzeagatik. Gainera, Administrazio Publikoek, legegintzako ekimena baliatuz, «*printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia...*» (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 129. artikulua).
11. Eta hori aplikagarri zaie *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua* Legebiltzarrerera igorri aurretiko administrazio-prozeduraren egintza guztiei –hasiera emateko agindutik hasita Gobernu Kontseiluak onartzeko egintzara arte, biak barne–; hala, bada, administrazio-egintzen baliozkotasun juridikoari eustea zein egintzak kontserbatzeko printzipioa horientzat guztientzat dira aldarrikatzeoak, azken hori barne, eta haien indarraldi materiala baino ez da baloratu behar.
12. Txosten honetan aipatu dugun Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren irizpenean aztertu da beharrezkoa den Aholku Batzorde Juridikoak beste irizpen bat eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak beste txosten bat ematea, oro



har. Irizpide orokor horiek hizpidera ekarri behar dira, ondoren –*Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektuari* dagokionez– aipatutako bi organo horien txostenak berriz egin behar diren edo ez aztertzeko.

13. Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko esku-hartzeari buruz, eztabaidaezina da organo horri aholkularitza eskatu behar zaiola lege-aurreproiektu guztiekin lotuta, haien gaia eta xedea edozein dela ere (azaroaren 24ko Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 9/2004 Legearen 3.1.a artikulua). Eztabaidaezinak dira, halaber, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. eta 57. artikulua, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak idatzitako moduan:

«56. artikulua

1. Jaurlaritzak, Aholku Batzorde Juridikoari igorri behar zaizkion lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, xedapenaren testua bakarrik igorriko dio Eusko Legebiltzarrari, behin prozedura hasteko agindua eman duen organoaren alde zuzeneko onespina izanda.
2. Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaioten dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaioten, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten.
3. Jaurlaritzak erabaki beharreko lege-aurreproiektuak eta dekretu-proiektuak Jaurlaritzako idazkariari bidaliko zaiotz, banatu dituzan. Doazkien sailek Jaurlaritzak berak ezarritako moduan idazkiek diotenarekiko onarpena adierazi dezatenean, Gai-zerrendan sartuko dira. Bat etorri ez edo baldintzaren batekin bat badatoz, Lehendakariari dagokion arazo hori Kontseiluak aztertzeko gaietan sartu edo ez sartu erabakitzea.

57. artikulua

1. Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaiotz legegaitzak batera, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena ere igorriko da eta, halakorik bada, txosten horretara egokitze oroitidazkia.
2. Legegaitzak, aurrekonturako kargaren bat badakarte, dagokien finantzaketa-eranskin bat eraman behar dute, eta hori Legebiltzarren erregelamenduak legegaitz buruz xedatutakoari jarraiki eztabaidatuko eta bozkatuko da».



14. Gobernu Kontseilura aurkeztzen den legegintzako ekimen orok Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena ere eduki beharraren kontua ebatzita, zalantza dago horrek aurretik irizpena emandako testu berari buruz beste irizpen bat ematea beharrezkoa den edo amaitutako legegintzaldiaren aurreko araugintza-ekimenarekin emandako irizpena nahikoa den. Gai hori zioetan oinarrituz ebatzi da Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzaren txostenean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Legeak (azaroaren 24ko 9/2004) 29. artikuluan xedatzen duena oinarri hartuta. Honako hau dio:

*«Irizpena eman eta gero irizpenaren aztergaietan **garrantzizko aldaketak** egiten badira eta, ondorioz, batzordeak egindako iradokiizun edo proposamenekin bat ez datozen edo horiek gainditzen dituzten eduki berriak jasotzen badira, kontsulta berria egin beharra dago berri, aldaketa horiei buruz».*

15. Xedapen horrek hitzez hitz adierazten duenetik ondorioztatu behar da, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak espresuki ohartarazten duen moduan, *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua* berriz ere aztertuko dela **garrantzizko aldaketak** baditu bakarrik, alde batera utzita Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena Jaurlaritzaren kabinete honekin edo aurreko kabinete batekin egin den. Eta, ondorio hori abalatzeko, Aholku Batzorde Juridikoaren Osoko Bilkuraren 4/2017 erabakia dakar hizpidera, irizpen-eskaera bat atzera bota baitzuen 2017ko apirilaren 26ko bilkuran:

*«7. Edo, beste hitz batzuekin, 10/2000 irizpenean adierazi bezala, Batzordeak gaia berri ere aztertu beharko du, baldin eta aurretik aztertutakoak ez diren **funtssezko elementuak edo alderdiak** badaude eta haien **garrantzia** dela-eta beste azterketa bat egin beharra badago bakarrik.*

8. Doktrina hori bat dator Auzitegi Gorenak Estatu Kontseiluari dagokionez ezarritakoarekin, eta, ondorioz, guztiz aplikagarri zaie batzorde honek esku hartzeko kasuei.

9. Doktrina horrekin bat etorri, laburbilduz, kontsulta berri egitea egokia da, baldin eta "...Estatu Kontseiluaren irizpenaren ostean egindako berrikuntzak ez baditu hark iradoki, kontsultarekin loturarik ez badute eta,



gainera, **funtsezko garrantzia** badute” (AGE, 1993ko maiatzaren 27koa, RJ 1993\102040).

10. Ondorengo erabakietan zehaztu dituzte kasu horiek; horrela, bada, Auzitegi Gorenaren 2009ko martxoaren 10eko Epaiak (AGE – RJ\2009\5110) honako hau nabarmentzen du: “Ez da beharrezkoa Estatuko Kontseiluari beste kontsulta bat egitea testua orrazten badute edo **funtsezkoak ez diren aldaketak** egiten badituzte (...), ezta proiektuaren eta behin betiko testuaren arteko desadostasunak egiteko prozeduraren ondorio logikoak badira; horren barruan, izan ere, hainbat organok txostenak egiten dituzte eta aldaketak eragiten dituzte horiek azkenean onartzen den xedapenean. Gaineratu daiteke, orobat, Salaren doktrinak berak nabarmendu duela xedapen orokorrak egiteko ezarritako prozedurako bermeen interpretazio funtzional eta teleologikoa egiteko beharra. Horiek ez baitaude justifikatuta egitearen formalismo hutsagatik, duten xedeagatik baizik, eta haien balorazioan dena delako xedapen orokorraren berezitasunak hartu behar dira kontuan (...)”.

11. AGE horrek, 2009ko martxoaren 10ekoak, gogorarazten du, orobat, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia dela (AGE, 2006ko martxoaren 8koa) xedapen orokor baten behin betiko testuan erantsitako aldaketak **funtsezkoak ez direnean** ez dela beharrezkoa beste entzunaldi bat egitea xedapenaren xedearekin harreman zuzena duten interes legitimoak ordezkatzeko dituzten elkarte, korporazio edo erakundeei, ezta Estatuko Kontseiluaren txosten edo irizpen berri bat egitea ere; “besteak beste, haien iritzia loteslea ez delako, hortaz, aldaketa ikuspegi erlatibotik –txostena jasotako testuaren berrikuntzagatik– zein ikuspegi absolututik –berezko garrantziagatik– aztertu ondoren **funtsezko aldaketarik** ez badakar aldeaz aurretik entzunaldi-izapidetik igaro edo txostena jaso duen ordenamenduan, egindako aldaketari dagokionez horiek ez egiteak ez dakar haren deuseztasun erradikalik, xedapena behin betiko idazteko abalmena duenak kontsultatutako erakundeen, korporazioen, elkarten eta erakundeen irizpidea edo ilustrazioa izan baitu, eta hori da, funtsean, bilatutako xedea (...) erregelamenduak egiteko prozedura ezartzean (...)”.

12. Eta 2001eko urtarrilaren 31ko AGEak aldarrikatzen du, orobat, 1993ko maiatzaren 27ko epaiari erreferentzia eginda, han egindako aldaketak baloratuz, aldaketa horiek ez zutela Estatuko Kontseiluaren irizpen berririk behar, “bateragarri egin behar baitira irizpen horren izaera finala, aurretik azaldutako gai guztiak eta egindako txosten espezifikoko guztiak laburbiltzen dituen judizio modura, eta Gobernuaren erregelamenduak egiteko abala baliatzea (...); eta hori kenduko zitzaien irizpen horren behin betiko idazketara hitzez hitz egokitu behar izanez gero, irizpena emateko igorritako proiektuan jaso gabeko gaiak arautzen baziren edo haren antolaketa **guztiz edo funtsean ezberdina** bazen –betiere horiek Estatuko Kontseiluak berak iradoki ez bazituen– baino ez zen alderdi horiei buruzko txosten berri bat eskatu behar, erregelamenduak egiteko abalaren titularrak baitu Estatuko Kontseilura igorritako testuan azken idazketarako



egoki deritzten erreformak gehitzeko abalmena, adierazitakoa beste mugarik gabe (...)”.

13. Aurreko doktrina erabat indarrean dago, 2016ko abenduaren 22ko AGE irakurrita ondoriozta daitekeenez (RJ 2017/106).

*14. Egokia da, horrenbestez, kantsultara aurkeztutako proiektuaren testua aztertzea berrikuntzen eta aurreko irizpenaren gogoeten arteko loturari buruzko irizpenari jarraikiz, hau da, Batzordearen irizpenaren iradokizunen ondorio diren edo, horrekin zerikusirik izan gabe, nahitaezko esku-hartze berri bat eskatzen duen **funtsezko garrantzia** duten».*

16. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenari dagokionez, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak ere ondorioztatzen du txosten hori nahitaezkoa dela Gobernu Kontseilura aurkeztu nahi den lege-aurreproiektu orori dagokionez. Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 133. artikulua berariaz aipatutako txostena da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legean ere badago (ekainaren 30eko 14/1994), 25.1 artikuluan, baita orain errepikatu behar ez ditugun legegintzako eta erregelamenduzko beste xedapen batzuetan ere.

17. Aurrekoa ezarrita, honako galdera hau egin behar dugu, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egiten duen modu berean: beharrezkoa al da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak beste txosten bat egitea Gobernu Kontseiluak jada onartutako lege-proiektu bati buruz?, edo aski izan liteke alde aurretik egindako txostenarekin? Zuzendaritza horren irizpide juridikoa honako hau da:

Lehena.- Ekonomia- eta arau-kontrol horren gaineko araudiak ez du berariaz xedatzen gaiari berriz heldu beharra dagoenik. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legeak (ekainaren 30eko 14/1994), 27.1 artikuluan, *in fine* baino ez ditu aipatzen Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman behar duen kasuak, eta, organo hori irizpena ematen azkena denez, «*Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinarazi beharke zuzentzeko organo aholku-emaile horren irizpenak jasotako iradokizun eta proposamenen ondorioz lege-aurreproiektuetan eta arau-proiektuetan egin daitezkeen aldaketak, onartu baino lehen*». Hau da, gehitutako aldaketa baino ez dute



jakinarazi beharko, bestelako izapiderik gabe. Ez da formalizatu behar beste irizpen bat.

Bigarrena.- Aholku Batzorde Juridikoaren iritziz ez bada egokia Gobernu Kontseiluak jada onartuta eta Legebiltzarrera igorrita dagoen lege-proiektu bat berriz igortzeari buruzko irizpena ematea, ez dirudi egokia denik Kontrol Ekonomikoko Bulegoak hori egitea. Eta, Aholku Batzorde Juridikoak lege-proiektu horri buruzko irizpena eman behar duela erabakiko balu ere, ez dirudi bidezkoa izango litzatekeenik Kontrol Ekonomikoko Bulegoak irizpena ematea, alde batera utzita haren irizpena edo iritzia eta erantsitako aldaketak –halakorik balego– jakinarazten zaizkion dagozkion legezko ondorioetarako.

III.- AURREKO LEGE-PROIEKTUAREN ARAU-BIDERAGARRITASUNA. AURREKO LEGE-PROIEKTUAREKIN EGINDAKO ADMINISTRAZIO-IZAPIDEEN INDARRALDIA

18. Adierazi dugu jada, txosten juridiko honen 7. lerrokadan, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Gobernu Kontseilura aurkez dezakeela *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektua*, Gobernu Kontseiluaren 2016ko otsailaren 23ko bilkuran onetsitakoa. Aurreko lege-proiektuaren arau-bideragarritasuna indarrean dagoela baieztatu behar du horretarako, hots, igorri ondoren onartutako arauak ez diotela eragin.
19. Gure iritziz, Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 23ko bilkuran onetsitako *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektuari* ez diote eragin igorri ondoren onartu diren arauak, ondoren adieraziko dugun zehaztapenekin. Kontuan izan behar da denbora-tarte labur bat baino ez dela igaro Gobernu Kontseiluan onartu zenetik eta, gainera, legegintzako jarduera geldirik izan dela aldi horretan, estatu-mailako zein Euskadiko hauteskunde-deialdiak direla eta.



20. Kirol Kontseilu Goreneko egungo presidenteak, Diputatuen Kongresuko Hezkuntza eta Kirol Batzordeko 2017ko maiatzaren 9ko Bilkuraren Egunkarian jasota dagoenez, «kirol-arloko lanbideen antolaketa» iragarri du «*kirol-zerbitzu egoki, seguru eta kalitatezkoak bermatzeko*». Estatuko aurreko gobernuek behin eta berriz iragarri dute lege hori, eta eragina izango du autonomia-erkidegoetako legerian, baina gaurko egunez ez dira haren ildo nagusiak ezagutzen, ez eta haren edukia edo irismena ere, eta, hortaz, ezin da ondorioztatu arau berrien ondoriozko eraginik izango dela.
21. Bestelakoa da, ordea, *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektuan* hainbat aldaketa txertatzeko aukera; proiektua Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 23an onetsi ondoren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak egoki jotako aldaketak dira, hain zuzen ere.
22. Gure iritziz, guztiz egokia da jarraian zerrendatuko diren xedapenen aldaketa:
- a) Laugarren xedapen iragankorraren lehen zenbakia:
- «1.- Lege hau indarrean sartzzen denean lege honek ezartzen duen lehen laguntza emateko kualifikaziorik ez duten kirol-arloko profesionalak **2018ko abenduaren 31ra** arte jarraitu ahal izango dute lanbide-jardueran».*
- b) Seigarren xedapen iragankorra:
- «EAEko kirol-federazioek lege honetara egokitu behar dute euren araudia, edo, hala badagokio, dagozkion xedapenak onartu behar dituzte, eta Kirol-Erakundeen EAEko Erregistroa bidali, onartuak izan daitezzen eta erregistroan inskriba daitezzen **2018ko urtarrilaren 1a** baino lehen».*
- c) Azken xedapenetatik seigarrena:
- «2.- Hala ere, **2019ko urtarrilaren 1etik** aurrera eskatuko zaizkie profesionaleri lege honek arautzen dituen lanbideetan jarduteko gaitasuna ematen duten lanbide-kualifikazioak. Boluntarioei **2020ko urtarrilaren 1etik** aurrera eskatuko zaizkie lanbide-kualifikazioak».*



23. Ikusirik hauteskunderen deialdia egin, Legebiltzarra desegin eta aurreko lege-proiektua iraungi zela, Gobernu Kontseiluak proiektua onetsi zuenetik denbora igaro dela eta Gobernu Kontseiluak proiektua Legebiltzarrera berriz igortzeko onartu behar duela, beharrezkotzat jo da aurreko lerrokadan letra lodiarekin nabarmendutako denbora-erreferentziak aldatzea, bi urte atzeratuz.
24. Era berean, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak funtsezkoak ez diren aldaketa hauek proposatu ditu Lege-proiekturako; horietako batzuk hizkuntza-normalizazioaren esparruan eskumenak dituen sailaren organoak proposatu ditu:

Zioen azalpena.-Aipamen bat txertatzea proposatzen da, kirola jarduera-esparru transbertsala dela eta, zehazkiago, «**euskararen erabileran**» eragina duela esaten duena.

Zioen azalpena.- Botere publikoek araugintza-ekimena gauzatzean bete behar dituzten printzipioei aipamen bat egitea proposatzen da, eta, zehazkiago, «**hizkuntza-eskubideak bermatzeko**» printzipioa txertatzea proposatzen da.

Zioen azalpena.- **Euskararen** ofizialtasunarekin bat etorririk, «*herriarrek beren ankerako hizkuntza ofiziala erabiltzeko duten eskubidearen bermea*» gehitzea proposatzen da.

2. artikulua.- 7. atal bat gehitzeko proposamena egin da, Eusko Jaurlaritzari «*kirolarekin lotutako lanbideen jarduera-eremuan **euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko***» neurriak hartzeko betebeharra ezartzeko.

4. artikulua.-Kiroletako begiraleei buruzko artikulua honen 2., 3. eta 6. zenbakietan Gobernuak onartutako titulazio akademiko berriak txertatzea proposatu da:



- Egokitzapen fisikoko goi-teknikaria; ekainaren 23ko 651/2017 Errege Dekretuaren bidez onartu zen titulazio hori (2017ko uztailaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).
- Zaldizko jardueretarako teknikaria; ekainaren 23ko 652/2017 Errege Dekretuaren bidez onartu zen titulazio hori (2017ko uztailaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).
- Gizarte- eta kirol-hezkuntza eta -animazioko goi-teknikaria; ekainaren 23ko 653/2017 Errege Dekretuaren bidez onartu zen titulazio hori (2017ko uztailaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

5. artikulua.-Kiroletako entrenatzaileei buruzko artikulua honen 2. zenbakian Gobernuak onartutako gizarte- eta kirol-hezkuntza eta -animazioko goi-teknikariaren titulazio berria txertatzea proposatu da.

6. artikulua.-Kiroletako zuzendariari buruzko artikulua honen 6. zenbakian Gobernuak onartutako gizarte- eta kirol-hezkuntza eta -animazioko goi-teknikariaren eta egokitzapen fisikoko goi-teknikariaren titulazio berriak txertatzea proposatu da.

10. artikulua.- Euskadiko Kiroleko Profesionalen Erregistroak informazioa «*euskaraz eta gaztelaniaz*» emango duela dioen aipamen bat txertatzeko proposamena egin da.

11. artikulua.- Beste letra bat, q, gehitzea proposatu da, «*zerbitzuen hartzaileek arauz onartuak dituzten hizkuntza-eskubideak benetan gauzatzera ahalbidetuko duten baldintzak bermatzeko*».

20. artikulua.- Artikulu honek plataforma birtualen bidezko edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidezko lanbide-jarduna arautzen du. Bertan, 5. zenbaki bat gehitzea proposatu da, «*webguneetan, aplikazioetan eta abarretan euskararen erabilera*» bermatzeko.



Hamabigarren xedapen gehigarri bat txertatu da, euskararen normalizazioari buruzkoa, honela dioena:

1.- Kirolaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak bermatuko du prestakuntza-ekintzak euskaraz eta gaztelaniaz egin abal izateko aukera, bai eta erregulazio honen bidez arautzen diren kirol-lanbideen jarduera-eremuko euskararen normalizazioa ere, batik bat haurren eta gazteen esparruetan.

25. Eusko Legebiltzarrera igorri zen lege-proiektuan txertatzeko proposatu diren aldaketa horiek hiru esparrutakoak dira: hizkuntza-eskubideak bermatzea; legebiltzarreko izapidetzea iraungi ondoren Gobernuak onartutako hiru titulazio akademiko berri txertatzea; eta Legearen indarraldiaren hasiera eta lanbide-kualifikazioak eskatzeko hasierako data aldatzea.
26. Aurreko lerroketan azaldutako aldaketa-proposamenei dagokienez, esan behar da **ez direla funtsezkoak, ez ikuspuntu kuantitatibotik ez ikuspuntu kualitatibotik ere**. Batetik, aldaketa-proposamen batzuk denboraren joate hutsaren ondorio dira, hau da, luzatu egiten dituzte aurreko lege-proiektuaren epe batzuk. Bestetik, hizkuntza-eskubideei dagozkien aldaketa-proposamenak ere ez dira funtsezkoak; izatez, gehienak beharrik gabeko aldaketak direla ere esan daiteke, Aholku Batzorde Juridikoak *Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektuari* buruzko 12/2016 irizpenean emandako irizpide zuzenari erreparatuz; izan ere, arauaren xedeak osasunarekin eta segurtasunarekin lotutakoak dira eta ez da beharrezkoa bestelako proposamenik txertatzea, *«helburu laudagarriak dituztela pentsa litekeen arren (...) beste arau-esparru batzuetan dagoeneko babestuta badaude»*. Hau da, legegintzako irizpide horren arabera, proposatutako aldaketak jasota daude dagoeneko hizkuntza-normalizazioari buruzko bestelako lege-xedapenetan. Horien xede bakarra, beraz, berme horiek azpimarratzea eta, ondorioz, ezin esan daiteke proposatutako araudi berria *«guztiz edo funtsean desberdina»* denik. Azkenik, ezin har daiteke garrantzizko aldaketatzat Gobernuak onartutako hiru titulazio berrien aipamenak txertatzea: Legearen hiru artikuluri baino ez diete eragiten eta, gainera, horien zati txiki bati bakarrik. Bestalde, kontuan izan behar da, halaber, 2016an Eusko Legebiltzarrera igorritako lege-aurreproiektuan ere jasota



zegoela, 8. artikuluan, etorkizunean onartuko ziratekeen titulazio berriei araudia egokitzeko aukera. Are gehiago, Gobernuak onartutako hiru titulazioetako bat Legean aipatutako ikasketa-tituluetako baten ordezkoa da.

27. Azaldutako gogoeta guztiak kontuan izanik, ondorioztatu behar da, **Lege-proiektuan funtsezko aldaketarik sartu ez denez, baliozkoak direla Gobernu Kontseiluaren 2016ko otsailaren 23ko bilkuran onetsi zuen Euskadin kirol arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege-proiektuaren onarpenaren arloan egin diren administrazio-izapide guztiak.**

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

JON REDONDO LERTXUNDI

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
zuzendaria